


# Testuen hautatzaile eta sarreraren egileen profila



BENGOETXEA CABALLERO, Joxerramon

Joxerramon Bengoetxeak Filosofia eta Zuzenbidea ikasi zituen UNEDen eta Euskal Herriko Unibertsitatean, hurrenez hurren, eta, bigarrenari dagokionez, Edinburgoko Unibertsitatean egin zuen doktoradutza. Zuzenbidearen Filosofiako irakasle tituluduna da 1993. urteaz geroztik, Euskal Herriko Unibertsitatean. 1993-1998 bosturtekoan, Europar Komunitateetako Justizia Auzitegiko letradu izan zen, eta ondoren Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuorde, hiru urtez. Oxford Unibertsitateko *European and Comparative Law Institute*-n sabatiko txiki baten ondoren, Europar Komunitateetako Justizia Auzitegira itzuli zen, letradu gisa. Gaur egun,

Oñatiko Soziologia Juridikoko Institutuko zuzendaria da. Argitaratu dituen lan gehienak Zuzenbidearen teoria, Europar Zuzenbide Komunitarioa eta Filosofia Politikoari buruzkoak dira. Eusko Ikaskuntzako kidea da, 1980. urteaz geroztik.



LACASTA-ZABALZA, José Ignacio

José Ignacio Lacasta-Zabalza Iruñean jaio zen 1946an. Zuzenbidearen Filosofiako katedraduna da Zaragozako Unibertsitatean, eta bertako irakasle 1971z geroztik. Beste hainbat unibertsitatetan ere aritu da lankidetzan: Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Filosofia Ikasketen Italiar Institutuan, Oñatiko Unibertsitatean, Mexikoko Unibertsitate Autonomoan eta Buenos Airesko Zuzenbide Fakultatean. Idatzi dituen liburuen artean, *Hegel en España; Cultura y Gramática del Leviatán portugués* –Espainiar Literaturako Sari Nazionaleko finalista 1989an– eta *Georges Sorel y su tiempo* azpimarratu beharko lirateke. Pamiela argitaletxeak *España Uniforme* eman zion argitarara 1999. urtean, zeina bi edizio izateaz gain gailegora ere itzuli den. Bere

azken artikuluen artean, *Género y ambivalencia del Derecho y de su sistema penal*, *El apagamiento del Estado y la disolución del Derecho* eta *La idea de la responsabilidad en la actual cultura constitucional española* ditugu.